



LIBURUA

# Hobe egongo ez banintz



DE BALJE

## HAN EZ BANENGO BEZALA

**EGILEA: SLAVENKA DRAKULIĆ**  
**ITZULTZAILEA: AMAIA APALAUZA OLLO**

PASAZAITE

**AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI**

**E**kainean bederatzi urte egin ditu Pasazaite argitaletxeak. Hamabost liburu argitaratu dituzte denbora tarte horretan eta horietako bat da Slavenka Drakulić kroaziarraren *Han ez banengo bezala* liburu gordin eta gogorra.

Liburua Jairo Dorado Cadillaren hitzaurrearekin hasten da. Oso interesgarria da bertan planteatzen duen auzia eta pentsamenduan katramilatuta geratu zait esaten duena: “Fikzioak ahotsa ematen die hitz egitea erabakitzen duten pertsoneri, aurpegirik eman behar izanik gabe. Aurpegirik eta izenik gabeko milaka emakumeren kontakizun anonimotan oinarritua da, beraz, fikzio hori; anonimoak bai, baina betiere errealak, indibidualak eta egiazkoak”. Ezingo nuke hobeto azaldu.

Bosniako gerran haurrei, neskatilei eta, oro har, emakumeei soldaduek egindako bortxaketa sistematikoak salatzen ditu idazleak liburuaren bitartez. Estruk-

tura borobila du kontakizunak; 1993ko martxoaren 27an hasten da lehenengo kapituluarekin eta urte bereko martxoaren 28an bukatzen da azkenengo kapituluarekin. Bien bitartean, baina, 1992ko maiatzetik gertatutakoa kontatzen zaigu.

Ahots narratiboa hirugarren pertsona orojakilea da, nahiz eta letra etzanez agertzen diren pasarte batzuk ere tartekatzen diren istorioan. Kasu horietan lehenengo pertsona irakurri ahalko dugu eta protagonistaren ahotsa aurkituko dugu hausnarketak egiten.

Protagonistaren izenik ez dakigu, S. inisiala soilik ezagutuko dugu. Leku konkreturik eta beste pertsonaien izenik ere ez dugu jakingo. Jairo Doradok aipatutako anonimotasunaren adierazle; izan ere, edozein emakume eta gerra izan zitezkeen liburu pertsonaia eta espazioa. S.-k hartzen du gure atentzioaren handiena. Bizitza arrunta izatetik, gerra krudel eta gordinaren ondorioak

jasatera igaro den emakumea ikusten dugu. Besteenganako konfiantza galtzen du lehenengo; beldurra onartzeko zailtasuna du gero; gorrotoz pizten zaizkio begiak. Guri erre egiten digu azalak. Finean, nola apurtzen duten kontatzen du. Nola identitatea lapurtzen ahalegintzen diren.

Oso estilo zuzena darabil. Esplizitua detaile eta gertaeretan. Gertatuko denaren beldur den pertsonaiaren buruan sartzen gara, irakurlea ere gertatuko denaren beldur. Angustiaz eta amorrus irakurri dut. Kontu handiz irakurtzeko liburu da. Ekarpena handia da. Luxu hutsa euskaraz irakurri ahal izatea.

Slavenka Drakulić-en hurrengo liburu Txalapartaren eskutik urriaren 1ean argitaratuko dela aurreikusten da eta hori ere Amaia Apalauza Ollo itzuli du euskarara: *Sekula ez liokete euli bati hegalik kenduko* du izenburua. Irakurtzeko irrikan gogo. ●